

# Arrasate

PRESS

ARRASATÉ • ARAMAIO / Egubakoitza / 2005eko otsailaren 11 / 704. zenbakia



## ARRASATE-ZARAUTZ mailari eusteko lehia

Zapatuan, 16:00etan, Garagartzan

ORAIN ETA HEMEN: ION AGIRRE HERRI EKIMENA/5 • KULTURA: '4 BIHOTZ' ANTZEZLANA /15

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 11**  
Azkoaga, Ferrerías 1 ..... 943 79 1515
- ZAPATUA, 12**  
Azkoaga, Iturriotz 17 ..... 943 79 79 99
- DOMEKA, 13**  
Corcuera, M. Aranbarri 1 ..... 943 79 22 26
- ASTELEHENA, 14**  
Irizar, Erguin 11 ..... 943 79 12 39
- MARTITZENA, 15**  
Amezua, Santa Marina 32 ..... 943 79 09 74
- EGUAZTENA, 16**  
Español, Araba etorb. 14 ..... 943 79 18 65
- EGUENA, 17**  
Ruiz, Maala 31 ..... 943 79 14 09
- EGUBAKOITZA, 18**  
Zabala, Zarugalde 42 ..... 943 77 16 30

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- ERIETXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea . . . 943 03 53 00  
Igualarria . . . . . 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak . . . . . 943 79 39 00  
Emakumeak . . . . . 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea . . . . . 943 79 90 11

- LARRIALDIK**  
SOS Deiak . . . . . 112  
Gurutze Gorria . . . . . 943 76 55 76  
DYA . . . . . 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua . . . . . 943 46 11 11  
Astelehenetik  
egubakoitzera . . . . . 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan . . . . . 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan . . . egun osoa

- Arrasate**  
Astelehenetik  
egubakoitzera . . . . . 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan . . . . . 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok eta pediatria 943 03 52 50
  - Espezialitateak . . . . . 943 03 53 11
  - Ikuskatzailea . . . . . 943 03 52 52
  - Kanpoko kontsultak . . . . . 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako Anbulantziak . . . . . 943 45 87 44

- ERTZAINZA**  
Arrasate . . . . . 943 79 71 99

- SUHILTAILEAK**  
Udal taldea . . . . . 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua . . . . . 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea . . . . . 088

- MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua) . . . . . 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) . . . . . 943 12 01 62  
Gasa . . . . . 900 40 05 23  
943 79 78 44

- GARRAIOAK**  
Taxiak . . . . . 943 79 12 22  
PESA . . . . . 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza . . . . . 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuen egoitza . . . . . 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monteiron . . . . . 943 77 01 05

**MEZAK**

<b>San Juan parrokia</b> Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (elebiduna) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	<b>San Andres eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)
<b>San Frantzisko eliza</b> Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (elebiduna) 12:30 meza nagusia (elebiduna) 19:00 (elebiduna)	<b>Santa Marinako eliza</b> Zapatua 19:00 (gaztelaniaz) Domeka 11:00 (gaztelaniaz)
<b>Uribarri parrokia</b> Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	<b>San Isidro eliza</b> Zapatua 20:00 (euskaraz)
	<b>Santa Teresa eliza</b> Domeka 12:30 (elebiduna)

**OHARRAK**

**SAN ISIDRO ELKARTEA**  
Etzi, domeka, San Isidro elkarteak batzar orokorra egingo du, 12:30ean. Horren aurretik, zapatuan, meza egingo dute San Isidro elizan, 20:00etan.

**TORTURAREN AURKA**  
Etzi, domeka, Arrasateko Askatasun eskualdeko kontzentrazioa egingo du Oñatiko unibertsitatearen parean. 19:00etan egin dute hitzordua. Torturaren aurkako egunaren harira egingo dute.

**58KO KINTOAK**  
1937an jaiotakoek urteroko hitzordua dute martxoaren 12an. Meza, txikiteoa eta bazkaria izango dituzte. Interesatuak eman izena martxoaren 6a aurretik eta 20 euro aurreratu. 943 791057 (Jose Riviere) edo 943 790248 (Pedro Fernandez).

**BEGIRALEAK BEHAR DITUZTE**  
Ikastolen Elkarteak uztailen antolatuko dituen euskal, ingeles eta frantses udalekuetarako begiraleak behar ditu. Derrigorrezkoa da 18 urte beteta izatea, euskaraz ondo egitea, begirale titulua izatea eta ingelesa edo frantsesa jakitea. Informazio gehiago: [www.bieikastola.net](http://www.bieikastola.net) edo 944 35 43 40 telefonoan.

**AEDrenAGENDA**

**14. KORRIKAREN LAGUNTZAILE EGITEKO AUKERA**  
Korrikaren laguntzaile izan gura duenak AEDra jo dezake. 12 euroren truke, Korrikari lagundu eta deskontuak izango ditu.

**URBANOENORDUTEGIA**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**  
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**  
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.  
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**

**RIP taldeak zuzeneko diskoa kaleratu zuen**

Punk belaunaldiko RIP taldeak zuzeneko diskoa kaleratu zuen. Gasteizen egindako kontzertu bat grabatu zuten, eta Hiesaren Aurkako Batzordearen eta Esan Ozenki diskoetxearen laguntzarekin kaleratu zuten. 80ko hamarkadako kantuen bildumak oso harrera ona izan zuen.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elepuru**



Lanez gainezka. — Uste dot lanpetuta dabillela eta lagaixozu bakiañ. JON IRAEGI

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**Arrasate Irratiko autobusa espazio-ontzi bihurtu zen Aratuste-martitzenean**

Aste honetan Aratusteak izan direla-eta, Arrasate Irratiak ere bat egin zuen ospakizunarekin. Hori dela eta, goizeko saioa, 107.7ko autobusa, mozturatu egin genuen. Arrazoi horregatik, egun horretako bidaia autobusean beharrean espazio-ontzian egin genuen. Estralurtarrei, baina, ez zitzairen gure mozturatu gustatu antza, eta etengabe euren lurraldetik ateratzeko mehatxumezuak bidali zizkiguten. Estralurtarren kontra gogor borrokatu eta ET pertsonaia ezagu-

naren laguntzarekin, ibilbidea arazo barik bukatzea lortu genuen, azkenean. Gure abenturaren berri gehiago gura izanez gero, aste-buruan eskainiko dizuegu labur-pentxo bat. Aratuste kontuekin jarraituta, biharamunean, eguaztenean, hainbat lagunekin izan ginen jaiaren gaineko iritzi bila. Aste-buruan horietako bi berreskuratuko ditugu: Luis Sagasta *Mane* eta Maria Anjeles Muruamendi-arazena, hain zuzen ere.

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Zapatua, 5	<b>-2 °C</b>
<b>MAXIMOA</b> Martitzena, 8	<b>16 °C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m²)</b>	<b>2,8 L</b>
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 2	9 °C 6 °C 2,1 l/m²
Eguena, 3	8 °C 4 °C 0,7 l/m²
Egubakoitza, 4	7 °C 6 °C - l/m²
Zapatua, 5	11 °C -2 °C - l/m²
Domeka, 6	11 °C 0 °C - l/m²
Astelehena, 7	12 °C 2 °C - l/m²
Martitzena, 8	16 °C -2 °C - l/m²


Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

- ZAPATUA**  
10:00 **Asteko gainbegiratua:** Aratuste martitzenaren gaineko kronika; Pernan Goñi, *Mamutxen eremua* poltsikoko telefonoen jolasaren gainean; Ibai Redondak. 14. Korrikaren eskualdeko arduraduna...
- DOMEKA**  
10:00 **Asteko gainbegiratua.**
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
09:00-11:00 **IGO AUTOBUSERA!**  
Albistegia.  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landak).  
Elkarriketak.  
Zozketak, etab...
- 11:05 **Musika**
- 12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- 12:20 **Zorion agurren tartea.** Esku hartzeko: 943 71 17 31.
- 12:30 **Izarren ordua:** abesti ezagunak
- 13:00 **Euskadi Irratiko albistegia.**
- 14:00 **IGO AUTOBUSERA! (errep.)**
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

## KALEINKESTA/ Badaukou Europako Konstituziñuen gaiñeko informaziñorik?



**PACO ESCOBALÉS**  
Erretiraue



**JULEN VICENTE**  
Langillie



**AINHOA JAUREGI**  
Langillie



**ROSA MARI FERNANDEZ**  
Langillie



**MAITE ITURRARAN**  
Ikaslie



**AITOR URIZAR**  
Langillie

Ez nau bape informaute. Oin arte komunikabidiek ez daue ixte ezer be esan. Politikuek ez duskue esplikaugure Konstituziñuek ze ekarriko dauen. Euruek behintzet kalte egin dusku.

Oso informaziño gutxi emuten dabitz, telebisiñoko anuntziuetan bakarrik. Informaziño horren premiñie dauket. Botue emuteko aukerie daukonez, esplikaugure egin biherko leukie.

Ez duskue informaziño haundirik emun, baiñe gero bakotzak bere kontutik informato ahalegiñe egitten dau. Europako eta hamengo gaixek lotuta dauzela uste dot.

Ondiokan ez dakit ze botau biher doun: zeren alde edo zeren kontra egin biher doun. Ez dot pentsetan informato dabitzenik, baiñe ondiokan ez dutzet horrei gai horrei kasurik egin.

Ez dauket horren gaiñeko informaziñorik. Badakit laster diela horreik elekziño horreik, baiñe askoz gehixau ez. Gureko neuke jakin ze elegidu biher doun egun horretan.

Komunikabidiek ez daue egin beste kasu batzuetan egin dauen esfortzue informato. Ez dakigu zelakue dan Konstituziño hori, eta politikuek be zeozer gehixau egin biherko leukie.

## TXALOAK ETATXISTUAK



**TXISTUAK AUTOAK OINEZKOEN BABESGUNEAN** Bizkaia etorbideko bizilagun batzuek aditzera eman digute Muxibar jatetxearen ondokoan dagoen oinezkoen babesgunean "autoak edozein lekutan" aparkatzen dituztela. Euren esanetan, babesgunean auto asko egoten dira, eta, horren ondorioz, ondoko oinezkoendako zebra-bidea ez da ondo ikusten. Istripu larriren bat gerta daitekeen beldur dira.

## ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /6

### Polmetasarekin hitzarmena

Udalak hitzarmena sinatu du Polmetasa enpresarekin, lantegia beste leku batera eramateko.

KIROLA /11

### Real Union Atxabalpen

Zapatu arratsaldean, Irungo Real Union taldearen kontra jokatu du Mondrak, Atxabalpen.

GAZTEAK /17

### Heziketa Zikloen eskaintza

Prestakuntza teorikoa eta praktikak uztartzen dituzten ikasketak gogora ekarri ditugu.

## ASTEKODATUA

# 450

### ERRETIRATU EGON ZIREN ABAROAN MARTITZENEAN

Martitzenean, 450 erretiratu batu ziren Abaroa elkarteetan. Urtero moduan, Aratusteak ospatzeko askaria egin zuten eta akordeoi jotzaile batek kontzertua egin zuen. Elkartea bete egin zuten.

## BESTEKEESANA

**Orain, esperantzari eusteko garaia dugu; pazientziak jokatzea; gure proiektuan sinisten dugula ikusarazteko unea; urte luzeetan zehar egindakoaren emaitzaz baliatzeko. Gizartetik isolatu nahi izan gaituzte, baina ikusarazi behar diegu, gu gizarte honetan erabat txertatuta gaudela; inor baino errotuago. Hots, gu gabe, ez dagoela proiektu demokratiko bat osatzetik Euskal Herrian. Euskal gizarteari ikusarazi behar diegu, benetako proiektu demokratikoa duena, ezker abertzalea bera dela, inor baldin bada. Isilarazi nahi gaituzte, garrasirik egin gabe, itzalarazi nahi gaituzte, baina jarrai dezagun trumoia bezain ozen eta eguna bezain argi. Urrats berriz, bidea urratzen; bidea bide baita egiten bada..."**

**XABIER ZUBIZARRETA**  
'GARA'/05-02-04

## HERRITARRENBERBAK/ Ander Etxeberria



### Kixote Mantxako

**G**ogaikarria gerta daiteke Don Kixote Mantxakoaren laugarren mendeurrenaren presentzia nonahi. Eta oraindik etorriko dena urtean zehar. Mendemugaren bozgorailua ez da alde batera uzteko moduko aukera, horretaz baliatu ahal direnzentzat. Baina gehiegikeriak eta hizkuntza baten erabilpenak (propaganda, kasu askotan) ez du galarazi behar liburuaren grazia dastatzea.

Ez da ahaztu behar obra unibertsala dela. *Che* Gebarak berak oso gogoko zuen, eta Kubako Banku Nazionalako buru zenean ehun mila ale argitaratu zituen jendearen eskura jartzeko. Literaturaren historian lanik zabalduenetakoa ere bada, hizkuntza askotan irakur daitekeena, baita euskaraz ere. XIX. mendean itzuli ziren lehenengoz euskarara atal txiki batzuk. Baina nobela osoaren itzulpena XX. mendean egingo zuen Pedro Berron-

do apaizak: 1976an ikusi zuen argia lehenengo liburukiak eta 1985ean bigarrenak. Baina, gaur, ezin daiteke liburu dendetan aurkitu aspalditik baitago deskatalogatuta. Laster berrargitaratuko dute, nolabaiteko atzerapenez bada ere.

**"Bere idealak bere komenientziaren ginetik jartzen ditu eta tinko jokatzen du zuzenak uste dituen helburuengatik"**

Mantxako herri batean jaiotako zaldunaren izaera ez da liburu orrietan geratzen; hizkuntza batzuk bere egin dute eta deskribatzeko erabiltzen da. Kixotea da pertsona bat bere idealak bere komenientziaren ginetik jartzen

dituena eta tinko jokatzen duena zuzenak uste dituen helburuengatik... lortu gabe. Azken bi hitz hauek kontuan hartu barik, gure artean aurki ditzakegu politikari bat baino gehiago perfil horrekin bat datozenak. Eta Don Kixoteren bestelako ezaugarri bati dagokionean, maitasunari dagokionean, bat baino gehiago ez, hamar baino gehiago dira Tobosokoaren bila dabiltzan pertsonak.

**Arrasate**

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA

Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA

Xabier Urzelai

Ubane Madera

MAKETAZIOA

Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA

Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA

Natali Martínez

Imanol Elortza

Amaia Mundiñano

ADMINISTRAZIOA

Agurtzane Gainzarain

Ane Berezibar

Iraxe Bengoa

BANAKETA

Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA

55-1124/88

ISSN

0214-4654

TIRADA

7.350 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala

ASTEABIHITZETAN

**Jon Agirrerren aldeko kale agerraldia**

Kale agerraldi jendetsua egin zuten joan den zapatuan Jon Agirre presoaren egoera salatzeko. 2.500 lagunetik gora elkartu ziren *Larri dauelako, Jon Euskal Herrira* lelopean egin zuten manifestazioan. 19:00etan hasi zuten Seber Altuben kale agerraldia, eta Arrasateko kaleetan ibili eta gero Seber Altubera itzuli ziren. Ramon Urrizalkik irakurri-tako komunikatuarekin amaitu zuten protestaldia.

Jon Agirrek Arrasaten du bizilekua. 1981ean atxilotu zuten eta harrezkero Euskal Herritik urrun dauden kartzelatan egon da preso. Egoera larrian dago, eta astean zehar jakin dugu Malagatik Logroñoko espetxera ekarriko dutela.

**Santa Ageda bezperan, kantuan**

Kopla zaharrek dioten moduan, Santa Ageda ospatu beharra dago. Urtero moduan, bezperan, goiz hasi zuten Santa Ageda koruek euren lana. Bi taldetan banatu eta Arrasateko kale eta auzoak kantuz girotzeko asmoz abiatu ziren. San Andresko Bedoñabe ikastetxean egin zuten geldialdi-tako bat; kantuan egin aurretik, baina, neska-mutikoen kantuak entzun zituzten. Bedoñabe utzi eta Bedoñara igo ziren koruko kideak, eta beste taldeak Musakola aldera egin zuten. Arratsaldean ere erdialdean eta auzoetan ibili ziren kantuan.

**18/98 sumarioaren kontra manifestazioa**

Joan den eguaztenean aurkeztu zuten Bergaran 18/98 Eta Gehiago izena daukan plataforma, izen bera daraman sumarioaren kontra egiteko herri mugimendua. Euskal Herri osoko 220 lagun daude auziperatuta epaiketa erraldoi horren zain. Tartean ibarreko zazpi lagun daude, besteak beste, Amaia Arrieta eta Natale Landa arrasatearrak. Eta dagoeneko esan dute noiz egingo duten manifestazio nazionala. Otsailaren 26an izango da, Bilbon.



**Gesalibarko jaietan, auzotarrak batuta**

Joan den asteburuan Gesalibarko auzotar guztiak elkartu ziren jaiak behar den moduan ospatu guran. Egubakoitzean giro ederra izan zuten Jentiola elkartearen egindako bertso afarian. Aitor Mendiluze eta Jokin Solozabal izan ziren bertsoetan; ez zuten izan etxera erretiratzeko presarik. Domekan, berriz, auzotar guztiak batu ziren elkartearen.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

*Ezinbesteko filtroa*

Asteburuan, salmenta handiak dituen egunkari baten irakurri nuen Irlandako bake prozesua eten izanaren errudun nagusia IRA dela. Harrituta utzi ninduen albiste horrek. Izan ere, nazioarteko gaietan arreta pixka bat jarri duen edozeinek jakin dezake hori ez dela horrela. Prozesu hori oztopatzearen errudun nagusia da Irlandak

autonomia handiagoa esku-ratzearen aurkako alderdi politiko bat. Hori entzun ez duenak bete-betean sinistuko du, jakina.

Halako esanak hainbeste saltzen den egunkari baten irakurri izanak gogoeta egitera bultzatu nau. Bate-tik, manipulazio horren atzean zein helburu egongo den; eta bestetik, hedabideek herritarren aurrean duten

sinesgarritasun txikiaren azalpen argia. Beste bat, besterik ez.

AEBetako datuei erreparatzea merezi du -jakin arren, AEBetakoak ez direla biztanle kritikoenak-: herritarren %35ek bakarrik uste dute hango hedabideek objektibotasunez informatzen dutela. Are gehiago, ikerketa hori 2000an egin zuten, Dorre Bikien eta ondorengo gertaera guztien aurretik. Hartzailaok badugu kritikotasun nahikorik?

ASTEKOIRUDIA



XABIER URTEJA

**HERRIKO ARATUSTEAK INDARTU BEHARREAN DAUDE**

Astean hainbat albiste batu ditugun arren, Aratusteena da irudi adierazgarriena. Beste herri batzuekin alderatuz, Arrasaten jai horrek garrantzi hain handia ez duen arren, oso koloretsua da, eta herriko bazterrek zeharo aldatzen ditu. Ohikoa den moduan, umeak izan ziren protagonista nagusi-

sienak, baina iluntzearekin bat gazteak eta nagusiagoak ere moztortuta irteten ausartu ziren. Hala ere, ezin du inork ukatu jaiak beherantz egin duela. Horretarako, bi aukera ikusten ditugu: bata, moztortzeko eguna aldatzea; eta bestea, eguaztenean jai ematea. Jaiak irabaziko luke! /I.B.

**S. CARRASCAL S.L.**

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikaren erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a  
Tel./Faxa: 943 79 01 82

**UGARTE**

**Industria hornidurak**

San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.  
Tel.: 943 -71 21 41  
Faxa: 943 - 71 21 40



**Pando Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebedun hizkiak

arbolapeta



## ELKARRIZKETA

ENRIKE LETONA ETA MARI TERE AGIRIANO / ION AGIRRE HERRI EKIMENeko KIDEAK

# “Ez dago preso politikorik, baina lege bereziak egiten dituzte euren dako; kontraesana da hori”

U.M.

**J**on Agirre preso aramaioarrraren Euskal Herriratzea eta askatasuna lortzeko lanean dabil azaroen ezkerreko Ion Agirre Herri Ekimena. Joan den zapatuan, esaterako, 2.500 lagunek bat egin zuten Arrasateko manifestazioan:

### Badirudi gehiengoaren sentsibilitatea piztu duzuela...

Hasiera baten PP bakarrrik bertu genuen. Gainerako guztiak egotea erabaki genuen. Hala, PSE-EEekin ere egon ginen, hemengo zinegotziekin. Hasieran ondo hartu gintuzten; esan ziguten pozten zirela guk euren gaitasuna jo genuelako eta aztertuko zutela egoera, gizatasunaren ikuspuntutik. Baina hurrengo batzarrean esan zuten informazioa jaso zutela eta bakarrik mokorreko arazoa zuela Jonek, ez zela larria eta ebakuntzarekin konpontzen zela. Horrenbestez, euren ez zutela ezer bultzatuko. Beste alderdi guztiak hasieratik babestu zuten Aramaioko eta Arrasateko udaletan aurkeztutako mozioa. Era berean, sindikatu guztiak eman zioten babesa. Baita UGTk ere, hemengo UGTk. Baina esan ziguten manifestazioetara eta eurak ez zirela azalduko.

**Manifestazioak aipatuz, zapatukoari 2.500 lagunek erantzun zioten. Zela baloratzen duzue?**

Oso ondo. Badakigu gaur egun zenbat kostatzen den jendea elkarrekin; jendearendako ahalegin handia da halakoetan parte hartzea. Pozik gaude emaitzarekin, baina poz handiagoa izango dugu Jon



U.M.

Arrasatera ekartzen dutenean. Adi egon behar dugu. Jon ez badute ekartzen guk jarraituko dugu gauzak egiten; eta ea jendeak parte hartzeaz gain mezua zabaltzen duen eta hurrengo batean askoz gehiago garen.

**Aurrera begira baduzue zerbait erabakita?**

Ez. Oraingoz erabakita dagoen bakarra da 92. artikulua eskatuko dugula: kartzelatik ateratzea gaitasun larriren bat izateagatik. Kontua da guk erabiltzen ditugula espetxeko medikuak eta Malagako ospitaleko medikuak egin-

dako txostenak. Eta inork ezin du esan gure sendagileak manipulatuak direla. Gu harremanetan gabiltzan traumatologoen ikusi bezain laster esan zuten egoera oso larria zela eta euren ustez betetzen zutela baldintza guztiak 92. artikulua eskatzeko. Beraz, hori eskatuko dugu, baita Donostiako ospitalera ekartzeko ere; hortxe dagoelako traumatologoen ekipa bat ebakuntza egiteko. Guztira, hiru ebakuntza egin behar dizkiote: mokorrean bi eta bat izorrratuta duen disko bat osatzeko (zainak konprimatu egiten ditu

horrek eta paralisia hanketaraino hedatzen dabilkio). Era berean, esan beharra dago gaur egun egoera horrek beste ondorio asko ekartzen dizkiola: geldi egotera behartzen dute. Eta Jonek hiperkolesterola eta diabetea ditu, besteak beste. Hala, diabetearendako azukrea erre egin behar da eta horretarako ibili egin behar da. Geldi dagoen bitartean diabetea handitu egiten zaio, eta hiperkolesterolarekin gauza bera gertatzen da. Arrisku handia du bihotzekoa, tronbosia edo halako zerbait izateko.

**Zer esango zeniekete esaten**

**dutenei (politikariei-eta) Jon Agirrek eta halakoek ez dutela eskubiderik merezi?**

Hori da nik esatea bezala euren ez dutela sufritzen. Eta nik ez du hori pentsatzen, inola ere. Badakit sufritu egiten dutela, egunero bizkartzainarekin ibiltzea ez da bate-re eroso, erasoak jasotzea ez da eroso... Nik pentsatzen dut alde guztiak sufritzen dutela. Jonen kasuan, uste dugu egoera ez dela bidezkoa hasieratik bukaerara. Oinarriko eskubideak beteta egongo balira, Jon ez litzateke espetxean izango. Legeak hori dio: norbait gaixorik dagoenean eskubidea duela ebakuntza egiteko eta norbaitek hiru laurdenak beteta dituztenean eskubidea duela kalera ateratzeko.

**Politika kontuengatik ez dituzte kalean uzten, baina era berean ez dituzte preso politiko moduan onartzen. Hala da?**

Bai. Kontraesana dago: ez dira existitzen preso politikoak, baina lege bereziak egiten dituzte justu sektore horrendako. Euren ukatzen dutena *de facto* onartu egiten dute.

**Besterik esan gura duzue?**

Azken berrien arabera, Logroñora ekarri behar dutela Jon.

**Hori ere pauso bat da...**

Bueno, gero ekartzen badute Euskal Herrira ebakuntza egitea... Donostiara ekartzen ez badute, berriro hasi beharko du ospitaleko proba guztiak egiten, itxaronzerrendan sartuko dute... Eta teoriarik 2006ko ekainean askatu behar dute; beraz, ez badute berehala zerbait egiten, ez dute denborarik izango ebakuntza egiteko. Gauza da nola ateratzen den kartzelatik: gorpil aulki batean edo zela. Zein asmo dute euren?



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismokak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76



Polmetasa Sinterstahl-go zuzendari orokor Manel Perez, Sinterstahl Taldeko zuzendari orokor Michael Krehel, diputatu nagusia eta alkatea.

**HIRIGINTZA/** Polmetasaren eta Udalaren arteko hitzarmena

## Polmetasa Uribarrira, eta San Andresen etxebizitzak

UBANE MADERA

Hitzarmena sinatu zuten eguaztenezan Udalak eta Sinterstahl Polmetasa lantegi-ko ordezkariak. Helburua da lantegia Uribarrira eramatea, oin bakarreko eraikin berri batera; eta gaur egun lantegia dagoen lekuan, San Andresen, 220 etxebizitza eraikitzea.

Udaleko ordezkarien artean, Inazio Lakuntza alkateak parte hartu zuen sinadura ekitaldian. Harekin batera, Sinterstahl Taldeko zuzendari orokor Michael Krehel

izan zen, besteak beste. Eta sinduraren luxuzko lekuko izan zen Gipuzkoako ahalzun nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarri.

### HITZARMENAREN NONDIK NORAKOAK

Alkateak adierazitakoaren arabera, hitzarmenaren helburua da, batetik, Polmetasak udalerrian jarrai dezan bermatzea. Horretarako, Ibarreta baserriaren lursailetan, 13.000 m<sup>2</sup>ko lantegi berria eraikiko dute, 250-325 lanpostu-erendako lekuarekin.

Bestetik, lantegiak utzitako lekua etxebizitzak eraikitzeke aprobetxatuko dute. 220 guztira,

%30 babes ofizialekoak (66 etxebizitza). Halaber, alkateak jakinarazi zuen 2007ko ekainean estreinatuko dutela Polmetasakoek Ibarretako lantegia.

Bestalde, diputatu nagusiak hitzarmen horren garrantzia azpimarratu zuen, haren esanetan, halakoek industria eta etxebizitza arloan dauden beharrei aurre egiten laguntzen dutelako.

Polmetasak automobilgintzaren sektoreendako osagaiak egiten ditu. 1991n nazioartera salto egin eta Sinterstahlek erosi egin zuen Arrasateko fabrika. Gaur egun, 238 langile ditu.

## Uribarrin etxebizitzak eraikitzeke beste pauso bat

U.M.

Uribarri auzoan berrikuntza lanak egitea du pentsatuta Udalak. Besteak beste, 180 etxebizitza eraikiko dituzte. Hain zuzen ere, lanok abiarazteko eremu hartarako plan bereziari hasierako onespena eman diote oraingo astean.

Etxebizitza berriak eraikitzeke, gaur egungo etxeen lerrokadura jarraituko dute, Garaiaraino. Guztira, 180 etxebizitza eraikiko dituzte Uribarrin, horietatik 40 babes ofizialekoak. Era berean, horrekin batera, oro har, Uribarri auzoa berrantolatuko egingo dute.

### APARKALEKU BERRIAK

Egingo dutenen lanen artean, lur azpiko aparkalekuak eraikitzea da Udalaren asmoa. Elizaren atzeko aldean eraikitzea dute pentsatuta. Edozelan ere, oraindik zehaztu barik dute zenbat aparkaleku egingo dituzten. Bestalde, aparkaleku horren gainean, plaza bat eraikiko dute.

### ELIZA, GOMESTIO ETA ESKOLA

Uribarriko elizari dagokionez, ingurua berri eta bere horretara utziko dutela esan digute. Gaineratu digute Gomestio baserria ere bere horretan utziko dutela, duen balio arkitektonikoarengatik. Ordea, baserriaren eranskina bota egingo dituzte, ordenazioz kanpo daudelako. Bukatzeko, Jokin Zaitegi eskola esparrua ere bere horretan utziko dute.

Bestalde, elizaren beheko aldean dagoen santutegitoxa bere horretan uzten ahaleginduko direla adierazi digute; edozelan ere, lekuz aldatu behar badute, bidearen ertzean ipiniko dutela jakinarazi digute.

### BIDE BERRIAK, ERGUINEN

Eta horrekin guztiarekin batera, besteak beste, hiru bide berri egingo dituzte Uribarrin. Asmoa da Erguin auzoko kale batzuei ibilgailuendako sarrera-irteera egitea. Hala, bide berrietako bat Udalpe kalearen jarraipena izango da eta beste bat Erguin kalearena. Hirugarrena auzo barruko joan-etorriko izango da.

## LABUR

### Kanpanzarko harrobian egiten dabilzan lanen gaineko txostena eskatu du Udalak

Cantera de Campanzar SA enpresa Udalatzen egiten dabilen lanen lizentzia berezirik behar ote duten galderaren gainean, Udalak zera erabaki du: ikerketa horiek ezin direla harrobiaren jardueratik aparte aztertu, harrobia ustiatzeko lizentziaren barruan dardela. Hala, hortik ondorioztatu du Kanpanzarko harrobiak ez duela horretarako lizentzia berezirik behar. Baina horrekin batera, zera ere ondorioztatu dute: harrobiak jarduera aldatzen badu, udal baimena behar duela (esaterako, mendi barrutik harria ateratzen hasten bada). Horregatik, Cantera de Campanzar enpresari eskatu diote gaur egun egiten dabilzan ikerketa lanen gaineko dokumentazioa, Udalak jakiteko harrobia zertan dabilen.

### Sexualitate aniztasuna bermatzeko ekimenak egingo dituzte urtarriletik maiatzera

Emakume Saitetik jakinarazi digutenez, sexualitate aniztasuna bermatzeko eta sexualitate mota guztien arteko elkarbizitza hobetzeko lanean jarraituko dute 2005ean Udak Sexologia Zerbitzua ren bitartez. Gizarteko arlorik gehienak lantzeko asmoa dute. Hala, hori abiapuntutzat hartuta, urtarriletik maiatzera arteko egitaraua antolatu dute. Pentsatu dituzten ekimenen artean honakoak nabarmendu dituzte: osasun arloan, elkarlana abiaraziko dute herriko ginekologoekin eta osasun zentroekin (besteak beste, antz sorgailuen eta erotikaren gaineko hausnarketa pizteko); heziketa arloan, iaz hasitako sexualitate lantegiak lantzen segituko dute eskoletan; bukatzeko, sexualitate eta erotika motak aztertzeke aldarrikatzeko, film laburrak emango dituzte.

### Laubide-Garibaiko aparkalekuak erabiltzeko eskubidea dutenen hamargarren zerrenda

Construcciones Bikani enpresak aurkeztu du Laubide-Garibaiko aparkalekuak erabiltzaile izango diren titularren hamargarren zerrenda. Horrenbestez, jakinarazi digute guztira, 56 aparkaleku daudela gordeta dagoeneko. Horren harira, Udalak gogor ekarri digu aparkalekuak eraikitze lanak amaitu baino lehen, lekua gordetzeko eskatzen dutenei prezioaren gainean %10eko beherapena egingo zaiela. Hori bai, betiere aparkaleku horren salneurria 15.000 euro bada.



### Emakumeek jasaten duten tratu txarren kontrako kale agerraldia

Oraingo martitzenezan Iruñean hil duten emakume gaztea dela-eta, hori salatzeke kale agerraldia egin zuten eguaztenezan, emakumeen aurkako tratu txarrak salatzeke Arrasateko taldeak deituta. Zenbait herritarrek isilpean salatu zuten horrenbeste emakumeek jasaten duten bidegabeko indarkeria bortitza. Ordu erdiz izan ziren udaletxe aurrean. U.M.

## ELKARRIZKETA

AITOR ALKORTA/PSIKOLOGOA

# “Kalamuarekiko mendetasuna psikologikoa da, fisikoki ez du mendetasunik sortzen”

UBANE MADERA

Aitor Alkorta psikologoa kalamuaren gaineko berbaldiak egiten dabil herriko zenbait ikastetxetan. Gizartean horrenbeste hedatu den droga horren gainean geuk ere gehiago jakin gura izan dugu, eta hari galdetu diogu:

### Hausnarketa bultzatzen ahalegintzen zara zu, ezta?


Bai; uste dugu kalamuaren kontsumoak lotura handiagoa duela norberak egoerei aurre egiteko duen jarrerarekin. Aztertzeko badugu kalamua substantzia moduan eta konparatzen badugu beste batzuekin, nahiko substantzia *sinpatikoa* izan daiteke: heroinarekin konparatuta, kokainarekin, alkoholarekin, tabakoarekin... Ez da ezagutzen kalamu gaindosi batengatik hil den inor, baina alkoholaren, tabakoaren, heroinaren eta kokainaren ondorioz hil direnak, bai. Substantzia bakarrik ikusita, gutxi pentsatuko dute kalamua kontsumitzea arriskutsua dela. Harrigarriena da askok tabakoa eta alkohola ez dituztela drogatzen hartzen. Nagusiek zein gazteek.

### Baina kalamuak baditu arriskuak...

Bi motako arriskuak ikusi behar dira: epe luzera eta epe motzera. Epe motzera: antsietate atakeak eta ikara atakeak. Estatistiken arabera, kontsumitzaileen %20k-edo izaten dituzte hala-koak. Normalean izaten dira kontsumoan hasiberriak direnak, ez daudelako ohituta; baina kontsumitzaile gehienak ohitura handia dutenen artean ere gerta daiteke, batez ere kalamua jaten dutenean.

Bestalde, gehien nabaritzen den efektua da epe motzeko oroi-menaren gaineko eragina; orain dela gutxi gertatutako gauza asko ahaztu egiten zaizkigu. Eta horrek badu eragina ikasketetan, kontzentratzeko gaitasuna murriztu egiten da, arretari eustea zailagoa da... Dena dela, pertsona bakoitzak bere moduan ikusiko du. Nire ustez oso inportantea da norberaren esperientzia errespetatzea. Batek esaten badu gustura dagoela horrela... Hark jakingo du.

Eta epe luzera, bost taldek kontraindikaturak dute kalamuaren kontsumoa: haurdun daudenek (tabakoarekin moduan); biriketako gaixotasunen bat dutenek (erretzea ez zaie komeni); bihotzeko arazoren bat dutenek (kalamuak hasieran piztu egiten duen erritmo kardiakoa); arazo psikiatrikoak dituztenek eta haur eta nerabeek. Azken horiek garapenzikloan daude, hazten, eta garai horretan egunero kontsumitzen hasteak eragina izan dezake.



U.M.

*“Kontsumoak lotura handiagoa du egoerei aurre egiteko norberaren jarrerarekin”*

### Zertan?

Nerabezaroa da garai aproposa buruko gaixotasun serioak azalera ateratzen hasteko: eskizofrenia, esaterako. Badaude pertsona batzuk dauzkatenak nolabaiteko osagai propio batzuk, kalamuaren bitartez azalera egiten direla. Kalamuak ez ditu sortzen. Alkoholak bezala, kalamuak potentziatu egiten ditu emozioak, nahiz eta batzuetan horiengandik ihes egiteko erabili.

### Bada kalamuarekiko dependentziarik?

Epe luzerako beste efektu bat da. Askok mendeko aitortzen dute euren burua, baina kontsideratzen dute maneia garria dela. Baina badago portzentaje bat, %5-10, mendeko bihurtzen dela. Kalamuarekiko mendetasuna psikologikoa da, fisikoki ez du mendetasunik sortzen. Ez du abstinenzia-sindrome gogorrik. Nikotinen mendean egon daiteke kontsumitzailea, *porruak* egiterakoan tabakoa erabiltzen delako, baina ez besterik.

*“Harrigarriena da askok tabakoa eta alkohola ez dituztela drogatzen hartzen”*

Mendetasun psikologikoa gertatzen da lotzen ditugunean kalamuaren kontsumoa norberaren egoeraren hobetzearekin, eta hobetze horretarako ez dugun beste biderik aurkitzen.

Mendetasun psikologikoa gertatzen da lotzen ditugunean kalamuaren kontsumoa norberaren egoeraren hobetzearekin, eta hobetze horretarako ez dugun beste biderik aurkitzen.

### Beraz, kalamuari lotu izan zaizkion kalte guztiak...?

Legez kanpo uzteko mito asko eraiki zituzten: hasieran esan zuten pertsona bortitz eta ia-ia hiltzaile bihurtzen zintuela kalamuak. AEBetan, 30eko hamarka-

dan halakoak erabili zituzten. Izan zen baita ere arrazakeria indartzeko estrategia bat: mexikarrak eta beltzak markatzeko. Erakutsi zuten hori guztia ez zela horrela, hasi ziren esaten kalamuak egundoko kalte kognitiboak eragiten zituela: neuronak akabatzen zituela eta epe luzeko eraginak oso kaltegarriak zirela. Eta ez da horrela. Batzuek diote pentsamenduaren erritmoa moteldu egin dezakeela, baina, kontsumoa lagatzerakoan, dena edo gehiena berreskuratzen da. Ikerketa eta irakurketa egiten dituenaren arabera, ondorioak erabat desberdinak izan daitezke.

### Edozelan ere, gehiegikeria gertatzen da kontsumoan...

Bai. Gehiegikeria da hiru-lau eremutan arazoak sortzen dituen kontsumoa egitea, nahikoa da eremu bakar batean arazoak sortzea gehiegikeria izateko: fisikoki arriskuan jartzea; psikologikoki ikustea nolabait nagikeria handia eragiten dizula, antsietate atakeren bat eragiten dizula edo, normalena ez izan arren, agerraldi psikotikoren bat etortzen zaizula; harremanetan eragiten badu, familiarrekin edo lagunekin; eta legearekin behin eta berriz arazoak izatea ere gehiegikeria litzateke. Baita plazerra lortzeko ezinbesteko zerbaitetan bihurtzen bada ere.

### Hala, kontsumo arduratsua bultzatzen duzue, ezta?

Guk beti uzten dugu argi kontsumitzaileak beti ekar ditzakeela arrisku batzuk. Baina arrisku horiek ez dira beteko pertsona guztiak berdin. Ezin da kontsumitzaile bakoitzaren eredu bat ipini. Batzuek ez zaie komeni erretzea sekula. Beste batzuek erreko dute egunero, eta, duten esperientzia subjektiboaren arabera, pentsatuko dute euren merezi diela. Ikerketa zientifiko piloek ondorioztatzen dute kontsumo moderatuak ez dituela jasangaitzak diren kalteak ekartzen, ez pertsonarendako ezta gizartearendako ere. Gure ustez, kontsumo moderatua ez da egunero erretzea, da noizean behin erretzea, momentuak ondo aukeratuta eta zertarako erabiltzen den ondo jakinda. Eta behin zertarako erabiltzen den ondo jakinda, norberak erabakiko du kalamua gehiegikeriaz kontsumitu edo ez. Nagusien kasuan, jakina, ez gazteen kasuan. Gazteei esango nieke ez kontsumitzaile, bizitzen dabiltzan etapa ebolutiboarengatik. Dena den, kontsumitzaile erabakitzen badute, lehenengo lor dezatela substantziaren inguruko ezagutza eta egin dezatela euren buruaren gaineko hausnarketa (Zertarako nabil hori erabiltzen? Zein muga eta errekurso ditut bizitzan...?); esaterako, ikasteko ez du merezi kalamua kontsumitzea.

## LABUR

### Udaleko idazkari eta diruzain lanpostuak

Laster deituko dute lehiaketa irekia Udalean hutsik dauden idazkari eta diruzainen lanpostuak betetzeko. Tokiko Gobernu Batzarrak oraingo astean onartu du lehiaketa hori deitzeko beharrezkoak diren oinarri-arauak eta merezimendu espezifikokoak.

### Loramendin sarbide aldaketak izango dira

Udaletik jakinarazi digutenez, Aramaio erreka ur zikinak batzeko hodi-biltzailearen lanak egiten hasiko dira Loramendi kalean. Halaber, jakinarazi digute horren ondorioz gune horretara sartzeko bideak aldatzen joango direla, lanak egiten dituzten neurrian. Edozelan ere, gaineratu digute sarbide aldaketok egingo dituztela han inguruko bizilagunei ahalik eta eragozpen txikien eragiteko moduan.

### Mekanika ikastaroan lekua dago oraindik

Datorren astean bi ikastaro hasiko dituzte Emakume Txokoan: barreterapia eta mekanika. Emakume Saitetik jakinarazi digutenez, barreterapiarako ez dago lekurik; bai, ordea, autoen mekanika ikastarorako. Hala, norbaitek parte hartzeko interesa badu, Emakume Txokora jo beharko du lehenbailehen. Mekanika ikastaroa martitzenean hasiko da, hilak 15; 17:30etik 20:00etara.

### AUKEAko gerente izateko lanpostua

Datorren otsailaren 16an, eguaztenean, 10:00etan joan behar dute udaletxera AUKEAko gerente lanpostura aurkezteko interesa dutenek. Hain justu ere, administrazio orokorreko teknikari lanpostua atera du Udalak; bitartekari funtzionario izaera du, aldi baterako (urte batetik bi urtera arte). Aukeraketa prozesura aurkezteko honako tituluren bat izatea derrigorrezkoa da: lizentziaduna Zuzenbidean, Zientzia Politikoetan, Enpresa edo Ekonomia Zientzietan, merkataritzako intendentea edo aktuarioa.

### Euskararen erabilera neurtuko du Udalak

Euskararen normalizazioaren bidean orain arte Arrasateko Udalak emandako urratsen jarraipen moduan, herriko euskararen erabilera zein den jakiteko neurketa egingo dute. 1998tik hona urtero egin ditu Udalak halako neurketak, euskararen erabilera zein bilakera izan duen jakiteko.

# Arrasateko Aratusteak: umeen eta ikasleen neurrira egindako jaia

XABIER URTZELAI

Martitzenean ospatu genituen Arrasaten Aratusteak. Arratsaldean umeek alaitu zuten Herriko Plaza. Gauean, berriz, ikasleak, jai zeukatenak eta lanera biharamunarekin joateko arazorik ez daukatenak irten ziren. Ez dira herriko jai erakargarrienak.

Horrek ez du esan gura Aratusteak ospatu zituztenak gaizki ibili zirenik, ezta gutxiago ere. Baina bistan da ez direla jarraitzaile gehien dituzten herriko jaiak. Eta normala da, martitzenean ospatzen den jaiak ez du eta sekula arrakastarik izango, egun hori eta hurrengo lanegun izanda. Hala, umeendako, gurasoendako, ikasleendako (MUKoak azterketetan daude), aste horretan lan arratsaldean egiten dutenendako eta biharamunaren beldur ez direnendako jai bilakatu dira Aratusteak.

## MUSIKA BANDA ALA 'ZIRKUA'?

Arrasateko Bandak, edo hobe esanda, *zirkua*ki girotu zituen kaleak, eta *zirkua* horrek laguntzaile ezin hobeak izan zituen: balet taldeko dantzariak. Taberna batzuk ere ahalegindu ziren jai berotzen, taberna bera moztortuta. Herriak merezi ditu Aratuste hobeak, ala?


*Neurri handi baten,  
umeendako eta  
ikasleendako dira  
Arrasateko  
Aratuste jaiak*



Arrasateko Bandakoek *zirkua* ekarri zuten herrira. Argazkian, *pailazoak*.



*Piratak indiarren kontra, eta tartean: sorginak, mimoak, ume gaiztoak...*



Umeendako jaia izango da, baina zein dabil hobeto pasatzen?



*Zirkua*ki dantzari ezin hobeak izan zituen emanaldia ikusgarriago egiteko.



Argazkiko lau gazteek ez zuten inongo dudarik izan: ondo apuntatu eta egurra argazkilaritari!





Potpourri ederra harrapatu genuen Arbolapeta inguruan.

X.U.



Sua eginda, lapikora nor sartu erabakitzen zebiltzan argazkikoak.

X.U.



Herritarrak beldurtzen ibili eta gero, neka-neka eginda zeuden hiru *ninja* horiekin egin genuen topo.

X.U.



Sor Citroen jantzita, bedeinkatutako pastelak saldu zituzten Muruamendarazen.

X.U.

**ad** **Ibabe**

**IBABE GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**UGARAN**  
*jatetxea*

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA**

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE



ARTXIBOA

Bihako norgehiagoka garrantzitsuan, Arrasate Errugbi Taldeak inoiz baino gehiago eskertuko du zaleen berotasuna.

ERRUGBIA

# Hil edo biziko partidua jokatu du Arrasatek bihar, Zarautzen kontra

Norgehiagoka irabazten duenak mailari eutsiko dio; galtzailea, berriz, jaitsi egingo da

XABIER URTZELAI

**Bihar arratsaldean (16:00etan, Garagartzan) jokatu duen norgehiagokan erabakiko da Arrasatek Estatuko mailari eusten dion edo beheko mailara jaisten den. Denboraldi osoa dago jokoan, eta jokalariek ondo dakite hori.**

Eta komeni da Arrasateko jarraitzaileek ere argi eta garbi izatea hori, bihar arratsaldean ezinbestekoa izango da eta zaleen bultzada. Arrasateko taldeko Jon Baltzategik eman dizkigu norgehiagokaren xehetasunak: "Bihar urte osoko lana egongo da jokoan. Zarautzek guk baino puntu bat

gehiago dauka, baina bihar bi egongo dira jokoan. Eta bi puntu horiek eskuratzen dituenak lortuko du mailari eustea". Nahiz eta liga amaitzeko beste jardunaldi bat jokatu duen, bihako partidua izango da erabakigarria: "Azkeneko jardunaldia Gernikaren kontra daukagu, eta badakigu euren kontra ez daukagula ezer egiterik".

**MIN HARTUTAKO JOKALARI ASKO**

Egoera horri egin beharko dio aurre Arrasateko entrenatzaile David Jauregik. Jonek esan digu bihako partidurako arazoak izango dituztela: "Txapelketa gogorra izan da, eta jokalariek asko gaude min hartuta. Batzuk denboraldi hasieran lesionatu ginen,

eta oraindik ez gara erreperatu. Alde horretatik, Arrasatek dituen jokalariekin egin beharko dio aurre Zarautzi, eta taldekideek daukaten guztia eta gehiago eman beharko dute. Horrekin batera, argi daukat gureta liga gogorra izan den moduan Zarautzendako ere beste horrenbeste izan dela, eta eurak ere jokalariek faltan daudela".

Arrasateko taldeko Oxel Etxebarria Zarautzekin entrenatzen da astero, baina Jonek esan digu ez dutela horren gainean berba egiten: "Arrasatek eta Zarautzek ondo baino hobeto ezagutzen dugu elkar, eta Oxelek ezer esan barik badakigu zarautzarrak zelan etorriko diren".

## ZALDIBARARETOFUTBOLA

### EMAITZAK

AC Surcos - Iriztu Taberna	5-5
La Kuadrilla - Saukelu Scream	4-3
Ekipo Aldeano - Tomahawk	1-3
Dribling - Torpedo Musakola	5-6
Mahattan Pippol - You Know!	3-5
Betrayer - Goma2	6-2
HLB 108 - AT Celaya	2-8
Irati Taberna - Billy & The Cowboys	3-6

### SAILKAPENA

MULTZO BAKARRA	P	J
1. You Know!	16	10
2. Irati Taberna	15	10
3. AC Surcos	15	10
4. Betrayer	12	9
5. Saukelu Scream	12	9
6. Iriztu Taberna	12	9
7. Dribling	11	10
8. Lasagabaster	11	8
9. AT Celaya	10	9
10. Goma2	10	9
11. Billy & The Cowboys	9	9
12. La Kuadrilla	8	10
13. HLB 108	8	10
14. Fuxion	6	9
15. Tomahawk	6	10
16. Torpedo Musakola	5	10
17. Abokajarro	5	9
18. Manhattan Pippol	4	9
19. Ekipo Aldeano	3	9

### PARTIDUAK

OTSAILAK 12, ZAPATUA.	EPAILEAK
11:00: HLB - Irati Taberna.	Goma2
12:00: Dribling - Goma2.	HLB 108
13:00: AC Surcos - Saukelu Scream.	Dribling
16:00: Lasagabaster - Tomahawk.	Iriztu
17:00: Abokajarro - Iriztu Tab.	Lasagabas.
18:00: La Kuadrilla - Torpedo Mus.	Aboka.
OTSAILAK 13, DOMEKA.	EPAILEAK
11:00: Manhattan - AT Celaya.	You Know!
12:00: Ekipo Alde. - You Know!	Manhattan
13:00: Betrayer - Billy & The...	Ekipo Alde.
Deskantsua:	Fuxion.



## BEHINGOAGATIK, ASTEBURU LASAIA

**ANTOLATZAILEEN PARTETIK, ZORIONAK, TALDE GUZTIEI**

Ez luke izan behar, baina horrela da: joan den astean ez zen inongo istilurik izan, eta hori berritasuna da. Hori bai, horrelako berritasunak beti dira ondo hartzekoak, eta txapelketako antolatzaileek eskerrak eman gura dizkiete talde eta jokalariei guztiei. Ea zenbat irauten duen. Joan den astea dagokionez, aurrealdean dabilzan talde batzuek galdu egin zuten, eta horrek erakusten du inor ez dagoela loak hartzeko moduan. Galdu zutenen artean daude Saukelu Scream eta Irati Taberna. Dribling ere nahiko ondo dabil, baina atzeko postuetan dagoen Torpedo Musakolak irabazi egin zion (5-6). Aipatzekoa da, baita ere, aurrealdean dabilzan AC Surcosek eta Iritzuk egin zuten partidua (5-5); ez dago oparirik egiterik.

Oraingo asteburuari dagokionez, argi zapatu eguerdian AC Surcosek eta Saukelu Screamek jokatu duen norgehiagokarekin.

## KIROLAGENDA

**JOKATZEKOAK**

**SASKIBALOA**

Mugarri Alkesako talde nagusiak deskantsua du.

**FUTBOLA**

Mondra - Real Union

Preferentea. Zapatuan. 16:30. Atxabalpen.

Mondra - Mariño

Ohor. Gazteak. Domekan. 12:30. Atxabalpen.

Lengokoak - Arrasate

Gazteak. Zapatuan. 19:15. Donostian.

Koskas Miren - Arrasate

Ohor Kadet. Igandean. 10:45. Matigoxotegin.

Arrasate - Aitzgorri

Infantilak. Zapatuan. 11:00. Atxabalpen.

Mondra - Zumaia

Neskak. Domekan. 10:00. Atxabalpen.

**ESKUBALOA**

AGR Arrasate - Urola

Lehen territ. Domekan. 12:30. Iturripen.

Urola - Arrasate

Bigarren territ. Zapatuan. 18:15. Zumarragan.

Gatz Museoa - Hondarribia

Gazteak mut. Domekan. 11:45. Iturripen.

Legazpi - Arrasate

Neskak. Zapatuan. 16:30. Legazpin.

Arrasate - Bidasoa

Infantilak. Domekan. 09:30. Iturripen.

**ERRUGBIA**

Arrasate - Zarautz

Estatuko Maila. Zapatuan. 16:00. Garagartzan.

**GIMNASIA ERMITMIKOA**

A mailako txapelketa Arrasaten

Zapatuan. 15:30. Uarkapen.

**ATLETISMOA**

### Markel Blanco hirugarren, Amurrioko krosean

Arrasateko atleta gazteak sasoi betean dagoela erakutsi zuen joan den asteburuan; izan ere, orain dela bi aste Lasarten podiumera igo eta gero, joan den astean ere beste horrenbeste egin zuen Amurrioren. Euskadiko Kros Txapelketa zegoen jokoan, eta 6.200 metroko lasterketan hirugarren helmugaratu zen Markel. Marka horrekin Arrasateko atletak eskuratu du Euskadiko selezioarekin Estatuko Autonomien Txapelketan esku hartzeko txartela. Galizian jokatu dute txapelketa hori, Santiagon, martxoko lehenengo asteburuan.

**MENDIA**

### Besaideko eski sailarendako dirulaguntzarik ez

Hori da Arrasateko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak joan den astelehenean hartu zuen erabakia. Erabaki hori hartu dute, alde batetik, 2005eko deialdia oraindik onartu barik dagoelako, eta bestetik, udal dirulaguntzen gainean joan den urtean egin zen planteamendu orokorrean dirulaguntza hori arautu barik geratu zelako. Tokiko Gobernu Batzarraren ustez, dirulaguntza hori ez zuten onartu ez zelako argi geratu dirua zertarako erabiliko zuten. Hala, Besaide Mendi Elkarte eski saila dirulaguntza barik geratu da.

**ESKUBALOA**

### Urolak asmatu egiten du AGRren kontra zelan jokatu

AGR Arrasate Urolaren kontra jokatu duen bakoitzean gorriak ikusten ditu, eta domekan jokatu dute haren kontra. Zumarragakoek, nahiz eta txapelketa onik ez egin, Arrasatekoen kontra jokatu gora egiten dute, sekulako zailtasunak emanez. Lehenengo itzulian, AGRk 24-22 galdu zuen Zumarragan, eta domekako partiduan ez dute horrelakorik gura. Zumarragako pibota eta erdilaria kontrolpean izanda asko irabaziko du AGRk. Arrasateko entrenatzailearen esanetan, hortxe egongo da norgehiagoka irabazteko gakoetako bat.

SASKIBALOIA

# Gorabehera gutxi izan dituen Real Union izango da bihar, 16:30ean, Atxabalpen

Irungo taldeak badaki kontrario gogorren kontra etxetik kanpo nola jokatu; gauza izan dira, besteak beste, Zubietan irabazteko

XABIER URTZELAI

Real Union ez da orain arte sailkapenaren goialdean egon, ezta behealdean ere. Liga txapelketa hasi eta berehala finkatu zen Irungo taldea. Bosgarren jardunaldia ezker ez da zortzigarren postuan baino beherago egon; izan ere, ondo daki sailkapenari eusten.

Lasaiago jokatzeko beharrezkoak diren puntuen bila zelairatuko dira bihar arratsaldean Mondra eta Real Union. Irungoek Arrasatekoek baino bost puntu gehiago baino ez dituzte, baina maila horretan bost puntu alde handia da. Hemendik eta denboraldi amaierara arte Mondrak baduzer hobetu, etxean jokatzeko duen batez ere. Zubiaren mutilek erakutsi dute hobeto jokatzeko dutela etxetik kanpo, eta hori ez da seinale ona; taldeak etxean izan behar du indartsu.

Biharko partidurako Arrasateko entrenatzaileak hainbat jokalaririk errekupekatuko ditu: "Muxi

eta Illart zigortuta egon dira eta Lazpiur eta Lopez min hartuta. Biharko, baina, lau jokalaririk horiek jokatzeko moduan egongo dira". Albiste onak dira horiek, eta Arrasateko entrenatzaileak espero du min hartuta dauden gainerako jokalariek ere errekupekatzea: "Oraingo astean hasi da Inaxio Dovao entrenatzen. Gol gutxi egingen ditugu, eta behar ditugu aurrelariak. Ikusi egin behar zelan errekupekatzen den, eta gogotsu ote datorren".

## REAL UNION, TALDE GAZTEA

Gazteak baina ondo jokatzen daitenenak, horrelakoak dira Irungoak: "Aurrelariak batez ere oso azkarrak dira, eta kontu handia izan beharko dugu eurekin. Guri dagokigunez, komeni zaigu puntuak eskuratu eta lasaiago jokatzea. Horrez gainera, gola falta zaigu. Joan den astean gehiago izan ginen; nabarmen, gainera. Baina ez genuen golik egin, eta kontrarioak izan zuen aukera bakarrean gola egin zuen. Eta horrek balio du".



Arrasateko taldea hasi da, poliki-poliki, min hartuta zeuden jokalariek errekupekatzen.

GOIENKARIA

# Matrikula epea 2005-2006

Haurtzaindegia - Haur Hezkuntza - Lehen Hezkuntza - D.B.H



Mesedeetako Andra Maria

IKASTETXEA

Tel.: 943 79 27 73

ARRASATE



*Otsailaren 14a*

***San Valentin  
eguna***



*Neska eta mutilentzako  
opari maitagarriak*



***Hika***

Olarte 2. Tel: 943 79 98 06  
ARRASATE

*Otsailaren 14an, m...*




**Bea**

Otalora 21. Tel: 943 79 12 05  
ARRASATE



**Elkoro Expert**

Olarte 20. Tel: 943 77 08 28  
ARRASATE



**Lorak**

Biteri etorbidea 13 Tel: 943 08 15 44  
ARRASATE



**Lore**

Olarte 10. Tel: 943 79 52 50  
ARRASATE



# Argentinako film bat, 'Che' Guevararen gaztaroa eta animaziozko lan bat

IKER BARANDIARAN

Datozen egunotako filmen eskaintzak oso itxura ona dauka. Juan Jose Campanella zuzendari argentinarraren azkeneko lana; *Che* Guevararen gaztaroaren gaineko kontakizuna; eta Robert Zemeckisek zuzendutako animaziozko lana.

Gaur, egubakoitza, bihar eta astelehenean, *Luna de avellaneda* filma emango dute Amaia Udal Antzokian. Argentinako film horrek 146 minutu irauten du eta Juan Jose Campanellak zuzendu du. Campanellak ibilbide luzea dauka eta azken urteotan hainbat film arrakastatsu egin ditu: *El niño que gritó puta*; *El hijo de la novia*; *El mismo amor, la misma lluvia*... Azkeneko bi lan horiek egin dute ezagun, batez ere.

1959ko Aratusteetan, Luna Llena de Avellaneda Kirol Elkarrekin bazkide ugari ditu. Gaur egun, berriz, elkarrekin krisi larrian dago, eta arduradunek erabaki garrantzitsu bat hartu beharko dute bizi irauteko: elkarrekin kasino bilakatzea, hain justu.

Komedia horretan, Argentinako hainbat aktore ezagunek esku hartu dute: Ricardo Darin (*Kamchatka*, *Nueve reinas*...); Eduardo Blanco (*El hijo de la novia*; *El mismo amor, la misma lluvia*...); Mercedes Moran (*Diarios de motocicleta*, *La ciénaga*...); eta beste batzuek.

Film horrek zabaldu zuen 2004ko Valladolideko Filmen Nazioarteko Astea.

## 'CHE' GUEVARAREN GAZTAROA

Eguenean, hilaren 17an, Argentinarekin zerikusi zuzena duen *Diarios de motocicleta* filma emango dute. Drama eta komedia generoen artean kokatu dezakegun lan horrek 128 minutu irauten du. Walter Sallesek zuzendu du (*Estación Central de Brasil*, *Ciudad de Dios*, *Madame Satá*...).

*'El hijo de la novia'*  
eta *'El mismo amor,  
la misma lluvia'*-ren  
egilearen azkeneko  
filma ikusgai

1952an Argentinako bi gaztek, Ernesto Guevarak eta Alberto Granadok, Hegoamerika ezagutzeko bidaia hasiko dute Norton motozikleta zahar baten gainean. Bidaia aurrera doan heinean inoiz kontatu dizkieten gauzak ikusten joango dira: miseria gorrian bizi den jendea, desagertzeaz dauden indigenak... Bidaia bukatu orduko bi gazteak ez dira lehengo berak izango.

Film hori Ernesto *Che* Guevararen *Notas de viaje* liburuan oinarrituta dago, eta honako aktoreek esku hartu dute: Gael García Bernal (*Amores perros*, *Y tu mamá también*, *El crimen del Padre Amaro*...); Rodrigo de la Serna (*El mismo amor, la misma lluvia*...) eta beste batzuek.

Bihar, zapatua, *Polar Express* animaziozko filma emango dute gaztetxoendako. 119 minutu irauten du, eta Robert Zemeckisek zuzendu du (*Regreso al futuro*, *Forrest Gump*, *Naúfrago*...).

Ume eszeptiko bat Ipar Polara doan tren batera igo da. Eta bidaia horretan asko ikasiko du. Gidoia Chris Van Allsburgen liburu baten oinarrituta dago, eta filmak Oscarretan hiru saritarako aukeratu zuten.



Argentinako aktore ezagunek esku hartu dute film horretan.



05-06 ikasturterako  
matrikula epea zabalik

otsailaren 14tik 25ra

UMEZAINZTA-URIBARRI

Udal Haur Eskolan (0-3 urte)

Uribarri etorbidea, 29 • 902 11 20 25

Instalazioak ikusi edo elkarrizketa egin nahi izanez gero, aurrez telefonoz abisatu.



ARRASATEKO  
UDALA

Arizmendi ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzua



Arizmendi ikastola

geurea, zeurea

# Maitasun-harreman zailen gaineko gogoeta umoretsua Markeliñeren eskutik

IKER BARANDIARAN


Etzi, domeka, Markeliñe antzerki taldeak 4 bihotz ikuskizuna egingo du Amaia Udal Antzokian, 19:30ean. Maitasun-harreman zailen gaineko gogoeta egingo dute ironia eta umorearekin.

Markeliñe taldeak eskola handia dauka antzerkigintzan. 1986an hasi zen antzezlanak prestatzen eta horretan dihardu oraindik. Taldeak bi ezaugarri nagusi ditu: batetik, lan originalak egiteko gaitasun handia du; eta bestetik, inprobisazioarekin asko jolasten du. 4 bihotz antzezlanean ere bi ezaugarri horiek bete ditu.

Maitasunarekin lotutako hainbat istorio kontatuko dituzte. Parke baten halabeharrez elkartuko dira, hitzorduak egingo dituzte eta bilaketak ere egingo dituzte. Hainbat pertsonaia tartekatuko dira istorioetan: maitaleak, ezagunak, ezezagunak, suizidak, likitsak, biziotsuak... Guztiak maitasun bila ibiliko dira. Bikoteak bat-batean trukatu dira edota betiko elkartuko dira eten ezin izango dituzten loturekin.

## UMOREA ETA IRONIA

Antzezlan horretan erreala eta irudizkoa nahastuko dituzte: lilura, erakarpina, bilaketa... Horiekin batera, apurtutako irudipenak, bihotz apurtuak eta, batez ere, maitasun-harreman zailak. Baina, betiere, umoreak leku



Markeliñe taldekoek ez dituzte gustuko ondo bukatzen diren maitasun-harreman istorioak.

nabarmena izango du, ironia ezinbestekoa izango da-eta lan hori ulertzeko. Horrez gain, inprobisazioa oso garrantzitsua izango da, eta horrekin asko jokatuko dute.

Lan hori 2004ko urrian estreinatu zuten, Zornotza aretoan. 4 corazones izenpean gaztelaniaz

egin izan dute hainbat lekutan, baina Arrasaten euskaraz egingo dute. Hala ere, esan beharra dago aktoreek oso berba gutxi egingo dutela ikuskizunean.

Honako aktoreek esku hartzen dute: Soledad Carril, Ana Martinez, Paco Revueltas eta Juanjo Oterok, hain zuzen ere.

Lanaren zuzendaria Jon Kepa Zumalde da.

Markeliñeko lantaldeak hainbat sari jaso ditu orain arteko ibilbidean, eta hamasei lanetik gora antzeztu ditu. Horien artean, umeei zuzendutakoak, kaleko ikuskizunak eta baita helduendakoak ere.

## LABUR

### Herf taldearen kontzertua 3.60 aretoan

San Andresko 3.60 aretoko arduradunak hasi dira ekitaldiak antolatzen. Gaur, egubakoitza, Gasteizko Herf taldeak kontzertua egingo du, 23:00etan. Doan izango da.

Talde hori 1997an sortu zuten, eta hasieran musika elektronikoa egiten zuten. Horren ostean, fusioa lantzen hasi ziren: hari-orkestrekin, multimedia proiektatzeekin... Iaz, makinak alde batera utzi eta bateria, baxua eta gitarra hartu zituzten. Gaur egun, rocka egiten dute, eta lortu duten emaitza Skunk Anansie, White Stripes eta stoner taldeen artean kokatu dute.

### Joskintza tailerra Ekin Emakumeak Elkartearen eskutik

Ekin Emakumeak Elkarteak hastapen mailako joskintza tailerra antolatu du. 10-12 laguneko taldeetan josteko lan txikiak norberak egiten ikasteko eta ondo pasatzeko ikastaroa da. Botoiak eta kremailerak zelan jarri, barrenak zelan hartu, errepa-soak zelan egin eta beste egingo dituzte. Ikastaroa otsailaren 21ean, 23an eta 24an egingo dute, 18:00etatik 20:00etara. Interesatuak hilaren 17a baino lehen eman beharko dute izena.

# Baserrietako erremintak eta musika instrumentuak ikusgai

I.B.

Lorentxo Altubek Etxaluze baserrian daukan erakusketa handitu egin du. Altubek urte asko darama musika instrumentuak egiten, eta baita ere baserrietako erremintak berreskuratzen.

Ikusgarria da Lorentxo Altube arrasatearrak Etxaluze baserrian batu duen erakusketa. Altubek urte asko darama musika instrumentuak eskuz egiten, eta aspaldian baserrietako erreminta zaharrak berreskuratzen ibili da. Ospea hartu du erakusketak, eta sarritan ibarreko eskoletatik zein beste eskualde batzuetatik lagun asko joaten dira hura ikustera.

## SEMEARENDAKO, TXALAPARTA

Orain dela hogeit bat urte, Lorentxo txoren seme Kepak txalaparta jotzen ikasi zuen, baina instrumentu hori lortzea oso zaila zen,

eta aitari eskatu zion bat egiteko. Altube oso trebea da, eta beharrezkoa zuen material guztia batu ondoren, txalaparta bat egin zuen. Lehena izan zen. Zaletasun hori zabaldu egin zen, eta ez zegoen txalaparta egile askorik. Horren ostean, beste instrumentu batzuk egin zituen: albokak, txirulak, txanbelak, adarrak, harpak...

Dagoeneko musika instrumentu ugari egin ditu, eta guztiak batu ditu Etxaluze baserrian. Horretarako, baina, lan handia egin behar izan du: "Instrumentuak egiten baino gehiago, orduak pasa ditut beharrezkoa zen mate-

rialia lortzeko. Hori izan da zailena. Bestela, horren ostean, egurrez busti, lehortu...", azaldu zuen Altube artisauak.

Horrez gain, orain dela urte batzuk baserrietako erreminta zaharrak bilatzen eta berreskuratzen hasi zen: "Horietako batzuk Etxaluzen aurkitu nituen, baina beste batzuk baserri eskatu ditut, eta jabeek borondatez eman dizkidate".

## UMEEEN ETA HELDUEN BISITAK

Hortaz, baserriko erakusketa bi zatitan banatuta dauka: batetik, Altubek berak egindako musika instrumentuak; eta bestetik, erreminta zaharrak. Azken horiekin, arotz baten lantokia, baserri baten sutondo ingurua eta beste irudikatu ditu. Horrez gain, uzta-riak, zerrak, pisuak eta etxeetako beste hainbat gauza batu ditu.

Hasieran iloben lagunak joaten ziren erakusketa ikustera, baina gaur egun eskoletako umek eta helduak joaten dira.

*Heldu eta ume askorendako, baserrietan zelan bizi ziren jakiteko aukera aproposa da*



Besteak beste, oso instrumentu bitxiak egin ditu Altubek.

AMAGIOIA LASABASTER

BOTEPRONTUEN

# Unai Etxebeste

GOISOLUTIONS

XABIER URTZELAI

Donostian ikesi euen Unai informatika, eta gero, Eskoria-tzako irakasle eskolan ibilli zan lanien. Hamar urte egin euen Jardun multimedia enpresan, eta oin bere kontu hasi dau abentura barrixe. Musakolan dauko lokala, Elcano kalien, Estrella taberna onduen.

Esan dotzu iñok montau berri dozun enpresiek super-heroi baten izena daukola?

Ez, baiñe egixe da ipiñi dutzeun izenan gaiñien barre dezente egin doule.

**Goisolutions: goikuen problemak soluzionetako?**

(Barre). Ez, ez... Goisolutions izena dator *Go Internet Solutions* berbatik. Baiñe, Debagoienien bizi garenez goi berbie ondo dator, eta goi mailako teknologixa enpresie danez, ba Goisolutions.

**Serixo ipiñiko naz. Ze lan egi-tten dozue?**

Gehixen bat informatikako aplikaziñuekin egitten dou lan, multimedia kontuetan. Webguniek, enpresa diferentietarako aurkezpen lanak, DVDiek... Horrekin batera, DVD eta CD kopixak be egitten dou.

**Zelako klientiek dauketzue?**

Ez daukou kliente klase konkreturik. Etorri leike enpresa haundi bat esaten webgune bat gure dauela, eta bardin-bardin etorri leike denda bateko jabie esaten berak be wengunie gure dauela. Argi dau bi kasu horreitan lan bolumena diferentie izengo dala, baiñe bixendako egitten dou lan.

**Enpresa gehixenek daukie webgunie, baiñe komertzio txikixek ez horrenbeste. Merezi dau?**

Bai merezi dau, bai. Azken baten, egin biher dan inbersiñue ez da haundixe. Argi dau, webgune gero eta kompletuaue gure izen presupuestuek gora egitten dauela. Baiñe, egin leike gauza kurio-sue prezio onien.

**Eta dendako jabiek ze lortuko leuke horrekin?**



*"Multimedia kontuetan egitten dou lan: webguniek, enpresendako aurkezpen lanak..."*

Ez dot esango webgunie daukolako gehixau saldu biher daunik, baiñe argi dau bere dendie eta bertako produktuek azkarrau egingo diela ezagunek. Etxe askotan dau Internet, eta edozein egunetan eta edozein ordutan sartu geike webguneren batek ze daukon ikustera. Baitte bankuen zenbat diru daukoun ikustera be.

**Itxuraz, Gabonetan loterixa mordue saldu zan Internet bidez.**

Bai, gero eta gehixau. Salmenta kontuetan, enpresa bat ondo asentaute badau komeni jako dendie on-line eukittie, hau da, Internetik produktuek erosteko aukerie emutie. Akaso, denda txiki bati ez

*"Denda txiki batei be komeni jako webgunie eukittie; ez da diru askorik biher, eta beti lagunketan dau"*

jako holakorik komeni, baiñe horrek ez dau esan gure webgunie eukittie komeni ez jakonik.

**Lanetik urtendakuen, etxera aillegau eta... Ordenadorera?**

Oin arte etxien ibilli naz lanien, eta holaxe egin dot, baiñe oin ez. Nahikue lan egitten dot hamen.

**Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.**

Jack Nicholsonen lan egitten dauen *Somethin's gotta give* pelikule / Ordenadorien gaiñeko liburu mordue leiduten dot / Jethro Tull entzuten dot gustora.

**Kapritxo bat.**

Ez dakit kapritxue izengo dan, baiñe hamen montau doune ondo juetie.

## NIREBIDAIAHURA/ Pedro Olmo / Leire Eraña

AEBetara / 2004ko urritik abendura arte


Pedrok eta Leirek AEBetan egin zuten bidaiaren azken kapituluaz duzue hau, nahiz eta bidean gauza asko utzi ditugun. Kaliforniako kostaldean ibili eta gero, Oregongo lagunen etxera itzuli zirenean Hawaiira egin behar zuten bidai prestatzera. Pedrok eman digu azken kapitulu honen berri: "Lehenengo bederatzigunak Mauin egin genituen, lagun baten etxean. Fisikaria da hura, eta, sumendien jarduerak ikertzeaz gain, Japoniako eta Australiako sateliteak ere kontrolatzen zituzten; nik adarra jotzen nion gobernuarendako lan egiten zuela esanez. Oso gustura egon ginen haren etxean; Mauiko bazterrak bisitatu genituen. Han ibiltzeko beharrezkoa da autoa alokatzea, eta uharteko barrualdeko ur-jauzietan egon ginen. Turistendako erakargarria zen hango gazteek ur-jauzietara salto nola egiten zuten ikustea; eta ni neu ere animatu nintzen jauzi egitera". Mauin, baina, komeni da surf egiterakoan kontu handiz ibiltzea: "Ez dute gura horrelakorik esatea, baina tigre-marrazo gehien dagoen lekuetako bat da, eta kontu handiz ibili behar da".



*"Hawaiin euskaldunekin izan ginen; surflariak ziren"*

Ez dago esan beharrik Hawaiiko oihan tropikalak, hango hondartzak eta koralez betetako arrezifeak zein ederrak diren: "Oahura joan gura genuen, han daude eta Honolulu eta Waikiki. Banuegogoa *Northshore* munduko surf txapelketako finala jokatzeko. Han, surf marka bakoitzak egiten du bere txapelketa, eta guk Vans markaren txapelketa ikusi genuen. Gauetan antolatzen dituzten jaietan ere izan ginen, eta munduko surflari onenak ezagutu genituen. Ezagutzen zuten Euskal Herria, Mundakan jokatzeko duten txapelketa dela eta. Zazpi egun egin genituen han aterpetxe batean. Australiako lagunak egin genituen, eta bizikletak alokatuta, eurekin joaten ginen surf egitera". Hiru hilabetean Oregon, Nevada, Kalifornia eta Hawaiira "Egia esan, horrelako bidai bat egin eta gero gogorra da etxera itzultzea".

XABIER URTZELAI



Joel Parkinson, Andy Irons, Fred Patanchia eta Mark Occhilupo surflariak

**PUB HAIZEA**

arrasate

*Lore*

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

**Aretz**

Markole 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA

Plater konbinatuak  
Ogitartekoak  
Hanburgesak  
Pizak  
Oilaskoak eta  
paellak eramateko



GUREGAIK/ IKASKETAK

# Heziketa Zikloak: prestakuntza teorikoa eta praktikak uztartzen dituzten ikasketak

ARRASATE/ IRRATIA/IKER BARANDIARAN

**Gazteak kezkatu egoten dira zer ikasi gura duten ez dakitela. Hala, beste aukera askoren artean, Heziketa Zikloak ekarri ditugu gogora. Hau da, lanerako prestakuntza ematen duten ikasketak.**

Heziketa Zikloak lanerako prestakuntza ematen duten ikasketak dira. Prestakuntza teorikoa eta praktikak uztartzen dituzte.

Heziketa Zikloak ikasten dituzten lagunen %80 lanean dabilta; hala ere, gizonezko edo emakume izan desberdintasun handia dago: hain zuzen ere, ikasketak horiek egin dituzten emakumezkoen %24 langabezian daude, eta gizonezkoen kasuan, berriz, %17 bakarrik daude langabezian.

Langabezia tasa txikiak ematen dituzten ikasketen artean honako hauek azpimarratu genituzke: Itsasoko eta Arrantzako Jarduerak, Gorputz eta Kirol Ekintzak, Fabrikazio Mekanikoa, Eraikuntza eta Obra Zibilak, Mantentze-lanak, eta abar. Arlo horietan emakumezkoen presentzia oso txikia da.

Langabezia tasa handien ematen dituzten ikasketen artean, berriz, honako hauek daude: Nekazaritza eta Abere Hazkuntza, Komunikazioa, Irudia eta Soinua, Arte Grafikoak, eta abar.

Horrez gain, beste batzuk ere badaude: Irudi Pertsonala, Altzarigintza, Ostalaritza eta Turismoa, Gizarte eta Kultura Zerbitzuak, Elikagaiak, Elektrizitatea, Administrazioa, Kimika, Marketinga eta Merkataritza, Ehungintza, Informatika, eta abar.

## ESKAINZA HANDIA IBARREAN

Ikasketak horiek 1.400 ordu (ikasturte bakarra) eta 2.000 ordu (bi ikasturte) bitartekoak dira.

Erdi mailako Heziketa Zikloak egin gura dituenak DBH, IEE (REM), BBB (BUP) edo teknikari ikasketak izan beharko ditu; goi mailakoak egin gura dituenak, berriz, batxilergoa, UBI (COU), goi mailako teknikari titulua edo unibertsitateko titulua beharko du.

Horrez gain, aukera egongo da izena emateko, azterketa bat gaindituz gero. Azterketa horiek maiztasun handian izan ohi dira, eta Arrasateko eta Bergarako HHIIn (Helduen Heziketa Iraunkorra; hau da, EPA) horiek prestatzen laguntzen dute.

Ibarrean hainbat ikasketak egiteko aukera dago, bai ikastetxe publikoetan eta baita pribatuetan ere: Galdaketa Bidezko Produkzioa, Metalezko Eraikuntzak, Mekanizazio Bidezko Produkzioa, Administrazioa eta Finantziak, Mekanika Proiektuen Garapena, Kontrol Sistema Automa-



Heziketa Zikloak, gazteek eskura dituzten beste ikasketak batzuk.

tikoak, Plastikoa eta Kautxuak, Ibilgailuen Elektromekanika, Erizaintzako Zainketa Osagarriak, Soldadura eta Galdaragintza, Kontsumorako Ekipo

Elektronikoak, Mekanizazioa, Arreta Soziosanitarioa, Ingurunea, Kirol Ekintzen Gidaritza, Ingurumen Kimika, Obrak eta Planak, Análisisa eta Kontrola,

Gizarte Integrazioa, Haur Hezikuntza, Idazkaritza, Merkataritza Kudeaketa eta Marketinga, Telekomunikazioa, Informatika Sistemak, eta abar.

## Txalaparta eta alboka ikastaroak

I.B.

**Otsailarekin batera, Udaleko Gazteria Sailak hainbat ikastaro antolatu ditu datozen hilabeteetarako. Hain zuzen ere, alboka eta txalaparta jotzen ikasteko aukera izango dute gazteek.**

Musika izango da protagonista Udaleko Gazte Sailak antolatu dituen ikastaroetan. Hain zuzen ere, alboka eta txalaparta ikasteko aukera izango da, otsailean hasita.

Alboka eskolak Angel Agirianok emango ditu. Hastapen eta sakontze mailetan izena emateko aukera egongo da. Otsailaren 19an hasi eta San Juanak arte iraungo dute eskolek. Zapatu goizetan egingo dute, hiru txandatan (10:00etatik 11:00etara, 11:00etatik 12:00etara edo 12:00etatik 13:00etara), Arrasateko Musika Eskolan. Matrikula 20 euro da; ikasleek eta lan-

gabeeek, berriz, 12 euro ordaindu behar dituzte.

Bestalde, txalaparta jotzen ikasteko eskolak ere abiarazi gura dituzte. Horiek Ttakun taldeak emango ditu. Hastapen eta sakontze mailak bereiztu dituzte, eta otsailaren 18tik maiatzaren 28ra bitartean emango dituzte.

Egubakoitzetan (20:00etatik 22:00etara) eta zapatuetan (11:00etatik 13:00etara) egingo dute, Musakolako saloian.

Matrikula 20 euro da; ikasle eta langabeeek, berriz, 12 euro ordaindu behar dituzte. Interesatuak Gazte Bulegora jo beharko dute (943 77 00 65).

*Hilaren 18an hasiko dira, eta langabeeek eta ikasleek gutxiago ordainduko dute*



Urtero egin ohi dituzte txalaparta jotzen ikasteko eskolak, eta oso harrera ona izaten dute.

ARTXIBOA

## ZAHARREN ETXETIK

# Mahai-jokoan txapelketak egin dituzte Uribarri eta Toki Argi elkarteetan

IKER BARANDIARAN

Joan den astean bukatu zituzten Uribarri eta Toki Argi erretiratuen elkarteetako mahai-jokoan txapelketak. Hala, txapelketa horietako irabazleek Debagoieneko finala jokatu dute laster.

Uribarri elkarteetako lehiakideek bi arratsalde egin zituzten jokoa. Eguenean, hilaren 3an, musean eta briskan egin zuten, eta honako hauek izan ziren bikote irabazleak: musean, Felipe Sanz eta Felipe Rico; eta briskan, Luisa Palma eta Angela Lopez.

Egubakoitzean, berriz, tutean eta dominoan egin zuten, eta honako hauek eraman zuten garaikurra: tutean, Avelino Garcia eta Manuel Rosamantak; eta dominoan, Francisco Roperok eta Jose Mari Garcia. Karta jokoen irabazleei garaikur bana eman zieten, eta dominoko txapeldunei, erloju bana.

## TOKI ARGIN SARI BANAKETA

Santa Marinako Toki Argi erretiratuen elkarteetan egubakoitze-



Eskualdeko mahai-jokoan finala Abaroan egingo dute, laster, ibarreko elkarteetako irabazleek.

an egin zuten sari banaketa, eta parte-hartzaile guztiek afaria egin zuten Egipe elkarteetan.

Toki Argin ez dute dominoan jokatu, baina horren ordez kua-

trolan egin dute. Honako hauek izan dira txapeldunak: tutean, Esther Albizu eta Juan Zabaleta; briskan, Lorenzo Martinez eta Teodoro Cuesta; musean, Jose

Manuel Uriarte eta Angel Egidon; eta kuartrolan, Diego Murillo eta Diego Sapo, hain zuzen ere. Irabazle bakoitzari garaikur bana eman zieten.



## Aratusteak, Iturbide egoitzan

Arrasaten Aratusteak martitzenean ospatu zituzten, eta erretiratuek ere hainbat ekitaldi antolatu zituzten.

Horren bi adibide Abaroa erretiratuen elkarteetan eta Iturbide egoitzan izan genituen, hain justu. Abaroan 500 bat lagun batu zituzten eta askaria egin zuten, baina ez zen ia inor mozarrotu.

Iturbide egoitzan, berriz, urtero moduan mozarrotu egin ziren -aurten, hawaiiar-. Nikolas Gardokik kontzertua egin zuen eta gogoz dantzaz egin zuten askok. //B.

## LABUR

## Parisera egingo duten bidaiaren gainean azalpenak

Toki Argi elkarteak batzarrera deitu ditu maiatzaren erdian Parisera joango diren erretiratuak. Datorren egubakoitzerako, hilaren 18rako, egin dute hitzordua, 17:00etan.

Bidaia maiatzaren 12tik 19ra bitartean egingo dute, eta aditzera eman digute oraindik badutela lekua.

## Toki Argiko lagunak, Azpeitira eta sagardotegira

Toki Argi erretiratuen elkarteak txangoa egingo du datorren zapatuan, hilaren 19an. Goizean Azpeitira joango dira Trenaren Euskal Museoan ikustera. Horren ostean, Donostian paseoa egingo dute eta bazkal orduan Aginagara joango dira, sagardotegira. Izenematea zabalik dago.

## Abaroak Calpera (Alacant) bidaia antolatu du

Abaroa erretiratuen elkarteak Calpera (Alacant) bidaia antolatu du. Bidaia maiatzaren 13tik 22ra bitartean egingo dute. Interesatuak 310 euro ordaindu beharko dituzte. Kopuru horretatik, 150 euro aurreratu beharko dituzte izena ematen dutenean.

Izenematea astelehenean, hilaren 14an, zabalduko dute eta azkeneko eguna martxoaren 11 izango da. Bazkide edo direnek ere eman dezakete izena, baina Abaroako lehentasuna izango dute. Hor-taz, gainontzeko erretiratuek martxoaren 1era arte itxaroten beharko dute esku har dezaketan edo ez jakiteko.

Prezioaren barne egingo dira pentsio osoko erregimena eta joanaldiko jana, besteak beste. Gela bikoitzak izango dira. Banako gela gura izanez gero, gehiago ordaindu beharko dute.

*Sili Sili*


Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Monte  
taberna

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

Garagardo ona, giro hobea



**TXIRRITA**

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

## EZETZASMATU



IKER BARANDIARAN

Zein kaletan dago argazkian ikusten duzuen atari polit hori?  
Arrastoa: handik gertuan, pilotan eta areto futboleko jokatzeko dute.

### Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**  
ARRASATE PRESSERA!

**RAM esnea**  
Litroko brika

**0,62€** 103 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

#### AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

**IZAS OLABARRIA**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Izas!  
Galderen erantzun zuzena:  
**Import Arrasate.**

## ARRASATEKO HISTORIA

# Arrasateko baserri auzoetako bideak (X)

'ARRASATEKO BASERRI...' / G. ARZELUS

**B**aserri-bideen gainean azkeneko kapitulua idatziko dugu oraingo honetan. Gesalibar auzoan hasi eta Bergararaino iritsiko gara:

**"Bustingorrixeta Bide (Gesalibar):** Bustingorrixeta izena nahiko galduta dagoen arren, oraindik bideak bertan dirau. Saratxotik Artabillarantz doan bidea da eta haren zoluak eta tratatuak oso bide zaharra dela adierazten digu. Dirudenez, Artabilla baserrikoek lehen auzunera jaisteko erabiltzen zuten bidea zen, dena den, gaur egun beste bide batetik jaisten dira.

**Camino Real de Coches (1758):** 1752an, Francisco de Ibero maisu azpeitiarrak, *Camino Real de Cochese*ko arduradunak, Beasaingo Manuel Martin de Carrerarekin batera, San Adrian-Beasain eta Gatzaga-Beasain herrian arteko bideak konpontzeko plano batzuk aurkeztu zituen. Hasiera batean, San Adrian-Beasain ibilbidea aukeratu bazuten ere, 1754an iritzi aldatu, eta Gatzagako onartu zuten. Oso kolpe latza izan zen hori San Adrianentzat, horrekin, ia abandonaturik gelditu baitzen.



Ibilbide berriak orduko *Real Fábrica de Armas de Placencia* lantegiarekin komunikabideak errazten zituen.

Behin Gatzagako bidea aukeratu, oso istilu gogorak sortu ziren zenbait herriren artean: Arrasate, Bergara eta Antzuola, alde batetik, eta Oñati eta Legazpi bestetik. *Erregebidea* Oñatitik igarotzen zen, eta hasiera batean helburua lehenagoko bidea ahal

*Gatzagako bidea aukeratu zuten, San Adriango beharrean; istiluak eragin zituen horrek*

zen neurrian erabiltzea bazen ere, denborarekin ideia hori aldatu egin zen.

Arrasate-Oñati-Legazpi-Villarreal (Urretxu) ibilbidearen orde, Arrasate-Bergara-Antzuola-Villarreal aukeratu zuten. Horrek min handia egin

zian Oñati eta Legazpiri, neurri handi batean, ekonomia komunikabide egokiei lotuta zeukaten eta.

Arrasatek, Bergara eta beste herri batzuekin batera, azken ibilbide hori defendatzen zuen txosten bat aurkeztu zuen. Txosten hark zioenez, Bergaratik joanaz zazpi kilometro gutxiago ziren; Oñatitik joanaz bi aldapa handi igo behar ziren (Azuela gaina eta Udana), Bergaratik, berriz, bat (Deskarga); Bergarako ibilbidea mesedegarria zen Deba, Azpeitia, Azkoitia eta Zestoa bezalako herrien merkataritzarako, baita Bizkaiko produktuak Gaztelarekin lotzeko ere. Guzti horretaz gain, ibilbide berriak, orduko *Real Fábrica de Armas de Placencia* lantegiarekin komunikabideak errazten zituen.

Arrazoi horientatik guztientatik, *Real Camino de Cochese*ko arduradunek Bergaratik igarotzen zen ibilbidea egitea aukeratu zuen. 1758an, Ibero maisuak jasotakoaren arabera, *Erregebidea* Arrasaten toki hauetatik pasatzen zen: Munzibar (Muxibar) errekatxo, Bolaneta (Boliñete) baserria, Zatorze-etxea (Satorretxe), Arzaeta zubia, Arraza zubia, Magdalena ermita, Osinaga (Osiña) errota eta Legargain ingurua. Handik aurrera, *Erregebideak* Bergararantz jotzen zuen.

# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko otsailaren 11 / 139. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Galtzada-harriak berritzeko lanak egiten dabilta

UBANE MADERA

Joan den astean hasi ziren Santa Kruz Apaiza izeneko biribilgunean kalea berritzen. Konpondu beharrean dauden galtzada-harriak aldatuko dituzte. Hilabetez-edo jardungo dute.

Lanen ondorioz, Nardeaga kalea itxita dago ibilgailuendako. Lanak egiten dabilen Excavaciones Arrasate enpresakoek jakinarazi digutenez, Nardeaga hasierako lanak bukatzen dituztenean, autobus geltokitik gertuago hasiko dira galtzada-harriak konpontzen. Hala, Nardeaga zabaldu eta Ibargoira-ko bidea itxi egingo dute ibilgailuendako. Hori egiten dutenean, plazatik joan beharko da Ibargoira eta Nardeagak bi noranzko izango ditu. Asmoa da txandaka ixtea kaleak, autoen joan-etorria guztiz ez eteteko.

Era berean, Santa Kruz Apaiza biribilguneko lanak bukatzean, plazako galtzada-harriak konponduko dituzte.

Bestalde, Udaletik jakinara-



Joan den egunez geroztik Nardeaga kalea itxita dago ibilgailuendako.

zi digute, lan horiez gain, Nardeagaren goiko zatian, ambulatorio inguruan, etxe berriendako azpiegiturak sartu behar dituztela laster. Udalaren nahia

da lanok egitea Nardeaga itxita dagoela aprobetxatuz. Baina Repsolen esku dago hori eta Udalak ez daki noiz hasiko diren azpiegiturak sartzten.

## Erlaxazio ikastaroa eta ipuin lehiaketa

U.M.

Txirritola Euskara Elkarrekin bi ekimen abiarazi ditu: Gorputz Laxapena izeneko ikastaro laburra eta IV. Txirritola Ipuin Lehiaketa. Ikastaroa datorren astean izango da. Ipuin lehiaketan parte hartzeko epea, berriz, martxoaren 5era artekoa izango da.

Gorputz Laxapena ikastaroa (erlaxazio ikastaroa) eguaztenez izango da, otsailaren 16an. Marijose Pagaldai eskoriatzarak emango du, kultura etxean, 18:30ean hasita. Interesa duenak otsailaren 14a (astelehena) bitarteko epea du izena emateko, otsailaren 14a barne; liburutegian egin behar du hori.

### IPUIN LEHIAKETAKO OINARRIAK

Ipuin lehiaketari dagokionez, Aramaion bizi edo ikasten dabilen edozeinek parte har dezake. Gaia librea da eta lanen luzera, asko jota, bi orrikoa. Ipuinak euskaraz idatzi beharko dira eta

liburutegira eraman kartazal batean, martxoaren 5a baino lehen.

### ADINAREN ARABERAKO SARIAK

Adinaren arabera antolatuta du Txirritola elkarrekin IV. ipuin lehiaketa. Hala, Lehen Hezkuntzako Bigarren Ziklokoendako bi sari izango dira: 60 euroko erosketa bonoa (Gasteizko Arriaga Mega-dendarako) eta diploma eta 48 euroko erosketa bonoa eta diploma. Lehen Hezkuntzako Hirugarren Ziklokoendako sari berak izango dira. Eta Derri gorrezko Bigarren Hezkuntzarako beste bi sari emango dituzte: 120 euroko erosketa bonoa eta diploma eta 90 euroko erosketa bonoa eta diploma.

### SARI BANAKETA

Esandakoaren arabera, martxoaren 18an banatuko dituzte sariak, kultura etxean, 19:00etan. Edozelan ere, gaineratu digute aurkeztutako lanek gutxieneko kalitaterik ez badute, sariak hutsik uztea erabaki dezakela epaimahaia.

## Santa Ageda eskea oparora eta jendetsua izan da

U.M.

Talde ugari atera zen Santa Ageda bezperan zaindariaren omenez kantuan. Goizean eskolakoak ibili ziren, ia herriko baserri guzti-guztiak bisitatzen. Bizente Goikoetxea abesbatza eguerditik iluntzera arte ibili zen. Eta auzo askotan Santa Ageda eske propioa egin zuten.

Barajuena auzoan, esaterako, oso aspaldiko ohitura dute Santa Ageda eskean irtetea. Aurten 30 bat auzotar elkartu ziren eta Barajuengo 18 baserriak bisitatu zituzten kantuan eta eskean. Auzotarrek batera, Barajuenera ezkondu daudenek eta Arrasaten bizi diren barajundarrek ere parte hartu zuten. Gero, batutakoarekin afaria egin zuten barikuan eta bazkaria San-

ta Ageda egunean, Koskoltegi elkartean.

### ABESBATZAK BALORAZIO POSITIBOA

Bestalde, Bizente Goikoetxea abesbatzak urteroko ibilbidea egin zuen, 14:00etatik iluntzera arte. Abesbatzako presidente Juan Jose Polek esan digunez, ondo ibili ziren, nahiz eta iaz baino apurtxo bat kantari gutxiagok bukatu ibilbidea. Edozelan ere, iaz baino diru gehiago batu dutela ere jakinarazi digu. Halaber, espero duela datorren urterako jende gehiago animatzea.

Bukatzeko, eskolakoek goizean egin zuten eskea, taldeka, auzo guztietara iritsi ahal izateko. Oraingo bizimoduaren ondorioz, baserri asko hutsik aurkitu zituzten. Hala ere, gogotsu egin zuten kantuan eta gehienguan zain zuten saria.



Barajuengo auzotarrak Santa Ageda eskean eta kantuan, Barajuengo Urdiñe baserriaren aurrean.

KULTURA

# Herriko gazteendako Aratuste, nagusiendako ez horrenbeste

Aurten argi geratu da Aratuste-ak gazteen esku geratzen dabiltzala, nagusien artean geroago eta mozturro gutxiago ikusten da-eta. Hala kontatu digute zapatuko jaialdian parte hartu zutenetako batzuek. Kontuak kontu, Aratuste egitarauaren barruan, mozturro lehiaketa izan zen zapatuan. Hona hemen irabazleak: 14 urtetik beherakoetan, Tartalo eta Artaldea irabazle eta Sukaldariak bigarren; 14 urtetik gorakoetan, Altxorren Bila izeneko mozturroa aurkeztu zuten bakarrik eta hark irabazi zuen; eta mozturro originalen artean, epaimahaiak Aramaioko Animatzaileei eman zien lehen saria eta Kurtzetagain Ehiztari Elkarteari bigarrena.

Martitzenean, berriz, mitologiako jantziek bete zituzten herriko bazterrak. San Martin Eskolakok asteak eman dituzte jantziok prestatzen, eta emaitza polita erakutsi zuten.



Tartalo eta Artaldea izeneko taldeak irabazi zuen, 14 urtetik beherakoetan, zapatuko mozturro lehiaketa.



Martitzenean, *galtzagorri* mordoia ikusi genuen kalez kale.



Errekan gora, berriz, *laminak* agertu ziren halako batean.



Egun argi izan arren, *gaekoak* ere ibili ziren eskola inguruan martitzenean.



Zelaian gora harrapatu genituen *aker beltzak* belarra jaten, *basajaunen* babespean.

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gofria (Legutiano)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
07:50	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

**OHARRA:** izartxoak duten orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

**BARIKUKO ZINEMA DELA ETA, ZUZENKETA**

Barikuko zinema saioekin lotuta, zuzenketa bat egin beharrean gaude: joan den astean iragarri genuen *Whale Rider* filma emango zutela, Zeelanda Berriko Niki Caro zuzendariarena; eta gainera, zinema saioa doan izango zela. Kontua da hori gaurko saiorako iragarpena zela, bai filmaren izenburua baita saioa doan dela ere. Beraz, barkatu gaizki esanak. Bestalde, jakinarazi digute otsailaren azken bi barikue-tarako, aurtengo Oscar sarietarako proposatuta dauden bi film emango dituztela: *El Bosque* eta *Conociendo a Julia*.

**DOMEKAKO ZINEMA**

Umeen zinema emanaldirako *Aladino el Principe de los Ladrones* filma aukeratu dute. 17:00etan hasiko da.

**KZGunea BI ASTE BARRU**

Datorren astean itxita izango da KZGunea. Bi aste barru zabalduko dute berriz, astelehenean, hilak 21, 16:00etatik 20:00etara. Ardoa ezagutzeko ikastaroa emango dute egun berean.

ERRETRATUZAHARRA

# Katekistak, Kantabrian txangoan

**K**atekistak ditugu oraingo asteko protagonista. Kantabriara txangoa egin zuten behin, eta irudiotako argazkia atera zuten, oroitzapenerako. Hain zuzen ere, Somorrostron ateratako argazkia da, 1951ko uztailearen 20an. On Justino Uribesalgoren artxibotik lortu dugu argazkia. Bitxia da benetan zein txikia ikusten den autobusa horrenbeste emakumeren artean.

Argazkian agertzen diren gehienek izenak lortu dizkigu gure berriemaile finak; asko direnez eta leku txikia dugunez, beste barik, izendatu egingo ditugu katekistok. Adi ibili eta zenbakieki ondo begiratu, izenen bat edo beste falta zaigu-eta: 1- Montse Ortubai, 2- ezezaguna, 3- Pilar Altuna, 4- Karmen Berezibar, 5 eta 6 ezezagunak, 7- Julita Agirreurreta, 8- Arantza Urrutia, 9- Adela Lopez, 10- Marisol Iturbe, 11- Pilar Artzamendi, 12- Mariasun Otadui, 13, 14 eta 15 ezezagunak dira, 16- Maria Nieves Otadui, 17- Karmen Iturbe, 18- Mari Lete, 19 eta 20 ezezagunak dira, 21- Ana Maria



Azkarate, 22- Maria Luisa Mondragon, 23- Mondragon, 24- Mertxe Saiz, 25- Kontxita Azkarate, 26- Anparo Balerdi, 27- Matilde Arana, 28- Luisa Sagasta, 29- Josefina Fernandez, 30- Margarita Pagoaga, 31- Margarita Zubillaga, 32- ezezaguna, 33- Kontxita

Azkargorta, 34- ezezaguna, 35- Margarita Lezeta, 36- Kontxita Villar, 37- Barandiaran, 38- Gallastegi, 39- Margarita Isasmendi, 40- Isabel Iriondo, 41- Tere Ortubai, 42- Maritxu Lasagabaster, 43- Maria Rosa Arana, 44- Jesusita Madina, 45- Milagros

Uribe, 46- Maria Luisa Madinabeitia eta 47- Kontxita Etxebarria.

**Argazkia:** On Justino Uribesalgo.  
**Informazioa:** Tere Ortubai.  
**Urtea:** 1951.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

## Legarra plaza, edo lehengo IFAM lantegia

**E**rretratu zaharra 1999an atera genuen, etxebizitzaren gainean egindako erreportajearen. Sasoi hartan, Zerrajerako etxeak eta IFAM inguruan egin behar zituzten etxeak ziren albiste, eta erreportajearen kontatzen genuen Arrasateko arazo latza zeukala: etxeen eskaera handia zela, eta herrian ez zegoela urbanizatzeke lurrik geratzen. Bada, hori ez da aldatu.



≈ 1999

Orain dela 6 urte 32 milioi pezeta balio zuen etxebizitza berri batek. Eta ordurako nabarmena zen etxebizitzaren prezioen gorakada.



2005

Erreportaje hartan aurreratu genuen IFAM inguruan 210 etxebizitza egin behar zituztela. Eta ederrak egin dituzte, gainera.

**BITTORI**  
**ERRETEGIA**

Eguneko menua - Kartako menua  
Especialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

**M**obiliario  
**A**RENAZA

- ALTZARIAK  
- DISEINUA  
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETAK








KONTRATAK  
**IRYROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14  
ARRASATE


# GRUPO **RKUZ**

Zure etxea da



1950  
2005



Araba etorbidea 20  
Te./Faxa: 943 79 23 51  
ARETXABALETA



Araba etorbidea 5  
Te./Faxa: 943 79 41 82  
ARRASATE



Mitarte 3



Te./Faxa: 943 77 04 55  
ARETXABALETA



Andramari auzunea

Te./Faxa: 943 79 10 97  
ARETXABALETA



**Euskal Eskola  
Publikoaren alde  
Egin Kinu!!**

Etorri gurera informazio eske

Gurasook zeresan handia daukagulako,  
galdetu beldur gabe gutariko bateonbati.

Otsailaren 14tik 25era



**ARRASATE HERRI ESKOLA**  
2-12 urte bitartekoentzat



**ARRASATE BHI**  
12-21 urte bitartekoentzat

**2005-2006 IKASTURTERAKO MATRIKULA EPEA ZABALIK:  
Otsailaren 14tik 25era arte**

**INFORMAZIO BILERA:  
BEDOÑABEN  
(SAN ANDRES AUZOAN),  
OTSAILAREN 15ean,  
18:00etan.**

Telefonoa: 943 79 77 74 – 943 79 20 69  
e-posta: arrasateesk@goieskola.net  
012127aa@hezkuntza.net  
Ordutegia: 09:00etatik 18:00etara.

- Integratzailea: euskal kultura garatzen dugu, eta beste kulturak era egokian geureganatu eta garatzen ditugu.
- Pertsonen arteko harremanak bultzatzen ditugu.

- Sortzailea eta autonomia.
- Ikastetxeen arteko loturak sustatzen ditugu.

**INFORMAZIO BILERA:  
MUSAKOLAKO INSTITUTUAN,  
BEHEKO ERAIKINEAN,  
OTSAILAREN 21EAN,  
18:00ETAN.**

**ARAMAIOKO SAN MARTIN ESKOLAN  
OTSAILAREN 22AN 18:00ETAN**

Telefonoa: 943 79 44 47  
e-posta: iarrasate@euskalnet.net  
Ordutegia: 09:00etatik 17:00etara



Debagoieneko Euskal Eskola Publikoa

